

Sakrifizioa

Xabier LOPEZ ASKASIBAR

NESKATXOA: Itxaronaldi itogarria. Neskato txikiak emakume bihurtzen dira udako gauean. Poliziaren sirenen oihartzunak durundi egiten du kale zikinetan; paretetako arraildurek agurtzen dituzte garai hobeak; idazkuneko argi gorriak dir-dir islatzen dira koltxoi txikituaren gainean: MOTEL.

Munduko panpina guztiek begi gorriak dituzte. Hori diote nire gelako andrakilek. Oka egiten dute. Benetan abilak dira horretan, horregatik onartzen diet. Norberak bere trebetasunak garatu ezin baditu, bere bizitzan porrot egin duela senti dezake uneoro. Hori dela-eta uzten diet oka egiten ohe inguruan. Kiratsa dario. Oka egiten duen panpinatxo bat naiz.

Logelako gizonak begiratzen nau. So egiten didala badakit, atearen beste aldean egonagatik ere. Oraindik gelara sartu ez den arren.

Panpinek begi gorriak dituzte. Hanka bat erauzi diete dantza sakratuan. Plastikozko orgia.

Logelako gizonak begiratzen du. Ezkutu, ate atzean. Senti dezaket haren hantsa. Tabako eta 96º-ko alkohol nahasketa. Kea dario bere arnasak. Hantsa masailean, bi izaki iledun nire larruazala ukitzen. Gal-tzetan infernua.

Egun horretan ez nuen oraindik hilerokorik, baina utzi nion andrakilekin jolasteari. Balio gutxikoa izango zara aldakak zabal-tzen zaizkizunean, esan zuten auzoko bozek. Sakrifizio xume bat familia asetzeko. Ulertu behar nuen, familia asetzeko ofrenda bat besterik ez zen. Behin bakarrik. Familiarentzat dirua lortzeko. Behin. Garrantzitsua sentitu nintzen bat-batean. Andregai banintz legez bere ezkontza egunean. Protagonista.

Hau triskantza! Lubakietako ajeak. Hankak eta besoak! Hankak eta besoak! Jauna, andrakila bat zatitzeko baimena eskatzen dut. Jauna? Ez, ez du odolik, baina ablazioa egin diote. Eskaera onartua? Esker mila, jauna.

Ateko heldulekua biratzen. Milioika izara nire gainean. Atean zirrikitu bat. Estropezu egin dut buru batekin. Zein da? Barbie erizaina ala Barbie eskiatzailea? Ez du inporta. Barbie guztiak urdanga batzuk dira. Euren osagarri guztiekin. Almidoizko milioika izara. Bat, bi, sorgin ipurdi... hiru, lau, sardina bakalau... bost, sei, ez nau ikusten... bost, sei, ez nau ikusten...

Pixkanaka-pixkanaka jantzi nintzen, erri-tual batean bezala, haur ezkongaiaren jantzi zuriaz. Kopetan musu eman zidan amak. Aitak ezkerreko masailean. Amets arrosetan eta kotoizko hodeietan pentsatu, esan zidaten. Prest nengo sakrifiziorako.

Ez dago aterik, bai arnasa gerturatzen. Bost, sei. Pixa egin dut gainean. Neskato helduek ez dute pixarik egiten ohean. Erremina. Neskato gaiztoa naiz. Osagai guztiak dituen panpinatxo. Neure izte-



Kristina FERNANDEZ

rrak hareazkoak dira. Pixa goldea. Neure izterrak kristalezkoak dira. Bere hatsa lausotzen duen lurrin zikina. Neure izterrak urte bat dira. Bere zakila mende bat. Orbelak karraska egiten du bere oinpean. Ez, ez dut hori esan nahi. Sarraskitutako gorputzek karraska egiten dute bere oinpean. Izaren azpian ezkututzen saiatzen naiz. Bat, bi, hiru, lau... bere urratsak. Zakur baten zaunkaz hitz egiten du. Izarek larruazaletik ihes egin didate, biluzik nago ohe gainean.

Gogaikarriak dira egunak, horregatik hiltzen ditut animaliak. Hiribarrenen ondorioak. Kasu hauetarako komeni da plastikozko tutu bat erabiltzea, gogorra. Bestela ez du inporta. Edozeinek balio dezake, alde bakoitzean zulo bat baldin badu, behintzat. Gero katu bat bilatu behar da. Kaleko katuak nahiko oldarkorrek dira; hobe da katakumea izatea. Ehizatze-ko? Ez dakit, deitu, janaria eman, bizkarrara leunki laztandu. Ez dakit, konfiantza har dezan. Orduan katua tinko heldu, ondoren ahotik tutua sarrarazteko. Errazagoa da lagunekin egitea, katuek gogoz eutsi egiten baitiote bizitzari. Tutuko beste alde estaltzen zaio. Astiro hiltzen joango da katua. Kontuz ibili, batzuk atzarmarkatzen saiatzen dira, espasmoak dituzte beste batzuek. Hoberena begietara begiratzen dizutenean da, hil ez ditza-zun erreguka. Gero hiltzen dira.

Izaren hondoan ihes egiteko zulo baten bila nabil. Alde egiten saiatzeak ez du zentzurik. Zorretan nago familiarekin. Arraren izerdi nazkagarria paretetan itsasten da, hartz itxurako gozoki gorriekin amets egiten dudana bitartean. Lotuko natzaio gizon horri.

Arnas egiteari uzten dionean hilda dagoela baieztatu behar da burua makil batekin kolpatuz burmuinak atera arte.

Egun horretan, negar egin nuen. Normala da, esan zuen amak, andregai guztiak bezala. Dirua poltsan nuenean, lehortu zitzaizkidan begiak, ahoa eta bihotza. Errazagoa izan zen ondorengoetan. Ohitzea besterik ez dago. Antzekoak dira gizon guztiak.

Txakur edo umetxo batekin ere egin daiteke. Behin mezan indarrez oihuka hasi nintzelako kaleratu minduten eskolatik. Jainkoa ez da existitzen, ez da existitzen! Masailekoak eman zizkidaten aurpegia gorrituz; ez nuen hiru hilabetetan hitzik esan. Aspertzen naizelako hiltzen ditut katuak. Egunez animaliak hiltzen ditut, gaez gizonak hiltzen naute.

Bere aurpegia ikusi dut azkenean. Prest nago sakrifiziorako. Jainkoen errukiaren menpe. Bururik gabeko panpina besarkatzen dut.

Xabier Lopez Askasibar Lizarran jaio zen. Orduetik antzerkiari oparitu dizkio bizitzako ordu gehienak. Idaztea ere gustuko du.